

Egunon guztioi, lehenik eta behin nere esker ona azaldu nahi diot Euskaltzaindiari, eta bereziki Andres Urrutia Euskaltzainburuari, beraien etxean hartu gaituelako gaurko aurkezpen honetarako, Euskadiko Kutxarentzat ohore bat baita gure hizkuntzaren zaindari den Akademiaren behin behineko lankide izatea gaur aurkezten dugun proiektu edo egitasmo honetan.

Era berean bijoakizue nere agurra eta esker ona gaur aurkezpen honetara hurbildu zareten guztioi.

Esaten nuen bezela Euskadiko Kutxaren presidente naizen aldetik guretzat ohore bat izateaz gain, benetan pozgarria da “Euskararen Herri Hizkeren Atlasa” egitasmoko kide izatea. Bakoitza bere alorrean, eta bakoitzari dagokion atalean, elkar lanean, proiektu amankomun bat aurrera atera nahian, elkar sinbiosis onuragarri eta aberats baten adierazle bihurtuz. Egitasmo honen beste helburu garrantzitsu bat euskal kulturari ezinbesteko ondare bat behin betirako uztea izan da, beharbada amankomunean burututako lankidetza hau aurrera atera ez balitz kultur altxor hau galtzeko arriskuan izango genuke eta alde horretatik, azpimarratu nahi dudana balorazioa da.

Horixe izan da gure proiektuaren eta izenaren ezaugarria gure 50 urtetako historia honetan, Jose Maria Arizmendiarrietak egia bihurtu zuen egitasmo honetan,

hain zuzen ere: lankidetzaz. Horixe izan da gure ardatza, eta izpiritu berarekin jarraitzen dugun heinean, horixe izango da hurrengo 50 urteetan ere gure jomuga. Lankidetzaz eta herriarenganako, zein herritarrenganako zerbitzua. Azpimarratu nahi nukeen beste puntu bat pertsona desberdinen parte-hartzea eskuzabala da.

Era berean esan behar, inolako lotsarik gabe, ez dela gaurkoa Euskadiko Kutzak euskararekin eta Euskal kulturarekin izan duen eta duen lotura sendo eta trinkoa. Gure eguneroko lanean, eta eginkizunetan erabat barneratua dugun konpromezua da, eta gainera ez deritzogu ezer berezirik egiten ari garenik, gure egin beharra baita, eta gainera harro gaude hala delako.

Esku artean daukagun proiektu zoragarri eta beharrezko honi buruz bi hitz bakarrik, Euskaltzainburu Jaunari dagokiolako hortaz aritzea, eta proiektu zabal hau aurkeztea, beraz, eta gure lankidetzari dagokionez esan behar, hau bezelako proiektuekiko atxikimenduak handiago egiten gaituela, sendoago, ezin baitaiteke ulertu gure lana eta egin beharra, ez bada hau bezelako proiektuetan partaide izanik. Horregatik gaur aurkezten dugun egitasmo honek bide hori jorratzen du.

1986an hasitako lana da, eta Euskal Herri osoko ia 150 herritan egindako inkesta eta itaunen ondorioz Euskaltzaindiak 4000 ordutik gorako grabazioak jaso zituen, benetako altxor bizia, sarritan eta zoritxarrez, gehiago emango ez dena. Horren ondorioz, Euskararen

Herri hizkerak bildu, eta aztertuko dituen Atlasa osatu da. Guztiontzat baliagarri izango dena, lehenik eta behin gure ondarrerik preziatuenaren testigantza bikaina delako, eta bestalde euskararen mundua aztertu nahi duten ikerlariantzako lehengai ezin hobea delako.

Ez naiz luzatuko gehiago, egitasmoa bera nahikoa da gure hitzen beharrik ez izateko. Izan bedi proiektu hau berriz ere gure elkarlaren eta konpromezuaren lekuko, eta gerora ere eman dadila gure kulturak hain beharrezkoa duen lankidetzara.

Eskerrik asko

Txomin Garcia, Euskadiko Kutxaren burua